

Bero-beroan

Euskarabidea nolabait dabil

ORAINDIK ez da urtebete Euskararen Nafar Institutua –gero Euskarabidea izena hartuko zuen– sortu zela. Udako oporretako barealdia baino lehen, olatu zurrunbiloa sortua da ordea. Xabier Azanza zuzendari eta kudeatzaileak Mikel Aranburu Aholkularitza eta Ikerketa zuzendaria kale-ratu du berriki, Azanzak adierazi duenez arlo profesionalean bat egin ez dutelako. Alegia, erakundea kudeatze-ko desadostasunak izan dituztela.

Bestalde, ekonomia krisiak Nafarroako Gobernuari ere eragin dio eta Nafarroako Gobernuako presidente Miguel Sanzek aurrekontuetan murrizketak iragarri ditu. Euskarabideari, beste hainbat atali bezala, eragingo dio. Orain arte lotuta zeuden

gaiek ez dute murrizketa jasango baina zehazteke daudenek bai, hala nola, hedabideek jaso beharko lituzketen diru-laguntzek eta ikerketa soziolinguistikoak.

Dekretua enpresa eta saltokiek euskaraz egin dezaten

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO Industria Sailak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herritar kontsumitzaileen hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko dekretua aurkeztu dute. Lehen aldia da horrelako neurria hartzen dela. Saltokietan eta enpresetan izango du eragina dekretuak; alabaina, ez dituzte neurriak guztiek bete beharko, hainbat ezaugarri dituztenek baizik. Esate baterako, komunikazio-sareak ustia-

tzen dituzten komunikazio-operadoreek, zerbitzu unibertsala ematen dutenek, eta jendearentzako telefono-zerbitzuak ematen dituztenek; bidaiarien trenbideko edo errepede-ko garraio publiko erregularreko zerbitzuak ematen dituzten enpresek; energia elektriko zerbitzua ematen duten banaketa-enpresek; gas naturala merkaturatzen duten enpresek. Enpresa eta saltoki txikienezko ez du balio dekretuak eta berau bete behar dutenek, urtebetetik lau urtera arteko tartea izango dute. HPSk diru-laguntzak emango dizkie saltoki eta enpresei. Dekretua betetzen dutenek Hizkuntz Konpromisoaren Zigilua jasoko dute.

Txerra Rodriguezek Garaigoikoa blogean ondoko iritzia eman du dekretuaz: “Dekretua betetzea ez da batere erraza izango. Hasteko, jartzten dituen baldintzak zailak dira betetzen, ezta milioi askotako dirulaguntzak emanda ere. Bigarrenik, nola betearaziko du dekretua Jaurlaritzak, bere menpeko organoetan honen moduko dekreturik betearazteko kapaza ez bada? Eta, hirugarrenik, dekretuak ez du zehapenik aurreikusten. Eta, sentitzen dut, baina Katalunian eurek duten egoerarekin horrelako dekretua betearazteko isunak jarri badira, Euskal Herrian mila-ka polizia linguistiko beharko lirateke hau guztia betetzeko.

Soziolinguistikoki aztertuta, aurrerapausoa denik ezin uka. Baina zalantza handiak ditut dekretua betetzen inoiz hasiko den ere. Beraz, ikuskizun nago, eszeptiko samarra. Hasiera batean, pausoak izango dira (baina paisaiari dagokionez) eta gero geroakoak”.

Behe-Bidasoarako tokiko prentsa aldarri

IRUN, Hondarribia eta Hendaiako hainbat eragilek Behe-Bidasoako euskarazko tokiko prentsaren aldeko manifestua aurkeztu dute Hondarribian. Pausumedia elkarteak, Irun Iruten euskara elkarteak, Hondarribiko euskalgintzako zenbait kidek eta EKTk komunikazio proiektu berria sortzeko eztabaida 2006an jarri zuten abian.

TALAIAN

Erbeste ekonomikoa Iparraldean

Iparraldeko biztanleria, gazteak batez ere, erbeste ekonomikoa nozitzera behartua dago. Horietatik askok beren lurra utzi behar izaten dute, bai ikasteko, bai lan egiteko. Frantziar Estatuko beste zonalde batzuetara joaten dira. Gero ez dira itzultzen, edo hala egiten badute ere, urte asko ondoren izaten da. Hegoaldea gehienentzat ez da helmuga erakargarria izaten. Hala diote Hemen-ek eta Gaindegiak iragan astean Baionan aurkeztutako datuek. Gauza jakina da Iparraldeko sare ekonomikoa batez ere turismoan eta merkataritzan oinarritzen dela eta horren ondorioz Iparraldeko langabezi tasa Euskal Herriko altuena da. 2005eko datuen arabera, EAEko langabezi tasa %7,3 zen, Nafarroan %5,6koa eta Pirinio Atlantikoetan, Iparraldeko biztanleria kokatzen den lekuan, %9,2koa. Betiko legez, emakumezkoak eta gazteak dira langabezia gehien nozitzen dutenak, Iparraldean %23,2 izatera iristen baita.

Ez da harrizkoa Iparraldeko gazteek Hegoaldean lan eta ikasketa arloko aukera erakargarrik ez topatzea, nahiz eta izan badiren ikasteko eta lan egiteko aukerak, Iparraldean bizitzen jarraitzea ahalbidetuko lieketenak. Euskal Herriko bi aldeetako administrazioek egoera hori aztertu eta irtenbideak bilatzeko ez dute apenas ahaleginik egin. Administrazio bakoitza bere lurraldeaz arduratzen da, eta Euskal Herriaren osotasunaz ahazten da. Beharrezkoa izango da administrazio guztiek, alderdi politikoez, eragile ekonomiko, sozial eta sindikalez ahalegina areagotzea; Hegoaldearen eta Iparraldearen artean komunikazio eta kooperazio handiagoa sustatzeko, Euskal Herri bateratuagoa eta integratuagoa lortzeko. Besteren artean Iparraldeko geure gazterien erbeste ekonomikoa saihesteko.

Juan Mari Arregi

564 taupada haiek ia zortziehun dira

FIDEL CASTROK FARCeke gerrilariei beren eskuetan ditzuten bahitu guztiak aska ditzatela eskatu die. Ez omen die esan armak entrega ditzaten, baina argi erakutsi du bahituak oihaneko baldintza latzetan izatearen aurkako jarrera, krudela dela eta lehenago ere hala adierazi izan duela. Ez duela hori esaten talde gerrilariak jaramon egingo diolakoan, baizik pentsatzen duena adierazteko duen betebeharrak gauzatzeko.

Ez ei da ohikoa buruzagi zaharra FARCi hala zuzentzea, besteak beste harreman politikoa batez ere Kolonbiako ELNko talde gerrilari kastristarekin izan duelako.

Hugo Chavez bezala, Kolonbiako talde gerrilari zaharrenak nekez egingo dio jaramonik Fidel Castrori, ez bide da hor berrikuntzarik izango. Castroren berbetan, eskaera zehatza bera bezain adierazgarria da adierazpenok egin beharraz buruzagi komunista zaharrak dioena.

Sei urte pasa zituen Ingrid Betancourtek gerrilarien esku eta bada berak baino denbora gehiagorik daramanik eta, seguruenik, baldintza gogorragoetan ere bai. Poztekoa da bera eta beste bahituak maite ditzuten artean libre izatea. Ez da horren poztekoa askapen operazioetik barreiatzen den ia mezu bakarria: negoziazioak ez du balioa, edo askatzen ditzute edo askatzen ditugu. Eta horrek ezin du beti balio, sarri diruan edo bestelako negoziazioetan oinarritutako akordioak, bahituen askatasuna ekarri duen operazio arrakastatsua bezain zilegi baitira.

EUSKAL HERRIAN ere indarrean oinarritutako xantairi buruzko eztabaida berpiztu da Garzon epaileak agindutako zenbait operazioekin. Enpresari zenbaitzuk espetxea ere



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Joxe Mari Sagardui 'Gatza' presoak 28 urte bete berri ditu Espainiako espetxeetan.

jasan behar izan dute ustez ETAriz zerga iraultzailea ordaindu izanagatik. Eta ordaintzen ez dutenen balentria goraiatu da, ordaindu izan duten ezagun eta ordaintzen duten anonimoen koldarkeria azpimarratuz zeharka. Alor politikorekin baino humanoarekin du zerikusirik nork bere bizitzaren mixeriak kudeatzeako duen eskubideak, nork bere burua defendatzeko duen betebeharrak.

SEI URTE oihanean bahitua izatearen mingotsaz ez da zalantzarik. 28 urte espetxean iragatearekin ere ez luke egon behar. Joxe Mari Sagardui *Gatza* zornotzarrak horietan bete berri ditu Espainiako espetxeetan. 1980an atxilotu zuten eta bi urte barru aterako da 30 urteko espetxealdia oso-osorik bete ondoren. Europa osoan espetxean denbora luzeena edo luzeenetarikoa daraman preso da zalantzarik gabe. 564 taupada haiek ia zortziehun bihurtu dira gaur egun, eta horietako asko 20 urtetik gora preso, Parot doktrinari esker 30 urte betetze bidean.

Batzuen ustez dagokien zigorra ordaintzen, maite ditzutenentzat askatasun haize, baina hori nork ulertarazi etxean zain bakarrik denari? Abestia sortu zen garaian baina zentzu handiagoa du gaur egun, zoritxarrez.

Aspaldi da Espainiako agintariak euskal presoan eremuan zigorra zigorraren gainean jartzea erabaki zutela, pertsonen eskubideen urraketarekin helburu politikoak lortzeko. Arbitraritatearen mundu kalkulatu da espetxearena eta ondorioak ere gogorak dira preso eta haien senideentzat. Aspaldidanik, sakabakak urte luzez sufrimendua eta gorrotoa barreiatu du senideen artean; Parot doktrinak tragedia ekarri du preso askoren baitara; eta zuzenbideko estatu normal batean kalean izango lirateke gaixotasun larriak ditzuten preso ugari. Konpondu gabeko arazo politikoa eta tragedia humanoaren hiru printza larri besterik ez dira. Ez da samurra izango Espainiako agintariak kasurik egitea, baina esateko betebeharrak dago.